


Saiakuntza nuklearrak eta osasuna

Iparmerikan jendea kezkatuturik dago 1963.ean munduan debekatu aurretik atmosferan egindako eztanda nuklearren ondorioez. 1951-1957 bitartean Ozeano Barean eta Nevada-n adibidez, 217 eztanda egin ziren. Denek dakite saiakuntza haietan erradiazioen eragina aztertzeke soldaduak nahita eduki zituztela eztandagunearen inguruan. Iparramerikako Zientzi Akademiak 1985. urtean burututako ikerketa baten arabera, soldadu horien eta minbizi-kasuen artean ez dago inolako harreman berezirik, eta ondorioz, minbiziz hildako soldadu horien familiei gobernua ez die indemnizaziorik eman.


Gaur egun ordea, ikerketa hori kritikatu egiten dute, arriskutan egondako 220.000 militarretatik 50.000 besterik aztertu ez zituztelako. Arazo honetan egia aurkitu nahian, gobernua Zientzi Akademiari beste ikerketa bat egiteko agindua eman dio. Ondorioak hemendik bost urtera jakingo dira, baina oraingoan kasu guztiak aztertuko dituzte

Nevadako basamortuan lurrean eztanda atomikoaren arrastoak ageri dira.



Bitaminak mesedegarri

Zientzialarien ustetan, Txinako erdialdean biztanleriak duen minbizi-tasa handia elikaduran bitamina gutxi hartzearen ondorio da. 33.000 pertsona ikertu dituzte, eta egunero E bitamina (argazkikoa), beta-karotenoa eta selenioa bost urtean emanda, minbiziz hildakoen kopurua % 13 jaitsi da.



Hezueriatik infartura

Organismoak azido uriko gehiegi duenean izaten da hezueria. Baina horrez gain, Napoliko 560 langile aztertuz egindako ikerketa batek dioenez, azido urikoak bihotzekoa izateko arriskua ere areagotu egiten du. Giltzurrunean litio ioiak eta sodio ioiak trukatzeko sisteman eraginda sortuko litzateke bihotzean kaltea.

Olioak obesitatearen kontra

Urte askotan umeek bakailao-gibelesko olioak hartu izan dute ama goilarakada emanda. Umeak gehiengoz ez zekien zergatik hartzen zuten, baina hemendik aurrera pertsona helduek zertarako den jakinda hasiko dira hartzen agian. Arratoiek egindako saiakuntza baten ondorioak pertsonengan ere izaten ote diren egiaztatu behar da lehenago.

Strasburg-en CNRS erakundeak duen zentruan Rene Groscolas zientzialariak gidatutako taldeak arratoiak saina edo arrain-olioa hartuta argaldu egiten direla egiaztatu dute. Obesitatea genetikoa zein elikaduragatikoa izan, "sainezko" erregimena lau astean eginez gero animalien sabeleko bi gantz-multzo bostenera etorri ziren, beste multzoek lehenen segitu zutelarik.

Lehendik ere ezagutzen zen arrain-olioak odoleko triglizerido-tasak jaitsi egiten zituela eta bihotzekoak jotzeko arriskua txikiagoa zela. Baina animalien izandako portaera gizakiengan egiaztatzen bada, asko izango gara egunero bakailao-gibelesko olio-dosia egunero hartuko dugunak. Horrela argaldu egingo gara eta bide batez arteriosklerosiaren kontrako erremedioa hartuko dugu.

Mina eta depresioa

2.300 pertsona aztertuz egindako ikerketa batek dioenez, hezurreta giltzadureta edo muskuluetako minak aurrez abisatzen ditu depresioak. Alderantziz ere gertatzen da ordea, hau da, min kroniko hauek

gero depresioa etorriko den seinale izan daitezke.

Koch-en baziloaren babesa

Tuberkulosia sortzen duen Koch-en baziloak ihes egiten dio immunizazio-defentsari. Baziloak jan behar luketen makrofago izeneko globulu zurietan izkutatzen da. Baina nola lortzen du hori?

New Yorkeko Cornell unibertsitatean Lee Riley epidemiologistak gidatutako talde batek dioenez, baziloak ADN-an dituen bi zatiri esker ezkutatzen da. Gene horiei dagozkien proteinak identifikatu behar dira orain, gero terapiarako estrategia gauzatu ahal izateko.



B hepatitisaren sendatzeko txertoa

Zenbait ikerlanetan frogatu denez, birus jakin batzuek kutsatutako gaixotasunetan immunizazio-erantzuna txertoen bidez sustatu egin daiteke. Frantziako INSERM erakundearen Christian Brechot, J. Hanoune eta P. Tiollais ikerlariak probak egin dituzte txertoekin B hepatitisaren dutenekin. Txertoak % 50etan izan du erantzuna, eta ikerketa saionagoak egin ondoren, interferon alfarekin bidez ematen den tratamendu klasikoarentzat laguntza izan daitekeela espero da.